

# 1936an fusilatutako hamar gorpuzki aurkitu dituzte Baternainen

Aranzadi zientzia elkarteak topatu ditu gorpuk  
• Nafarroako Gobernuak dio litekeena dela Ezkabatik eramandako presoena hilotzak izatea

**Hodei Inuretagoiena-  
Iñaut Matauko Rada**


Aranzadi zientzia elkarteak 1936an frankistek fusilatutako hamar lagunengorpuzkiak topatu ditu Baternainen (Zizur, Nafarroa). Estatu kolpearen ondoren, 1936ko uda eta 1937ko urte hasiera artean nafar ugari fusilatu zituzten inguru hartan. Herritar baten lekukotzari tiraka, hilaren 20an hasi zituzten indusketa lanak, eta Baterna indik Iberora doan bidearen ondoan aurkitu dituzte gorpuzkiak, hiru hobitan, laborantzarako lursail batean. Ana Ollo Nafarroako Gobernuko Herritarren Harremanen kontseilariak azaldu du lehen ikerketen arabera litekeena dela Ezkabatik eramandako presoak izatea.

2017an iritsi zitzaizen abisua Nafarroako Memoria Institutura, Nafarroako Fusilatuen Senitartearen Elkartearen bidez. Baternaino

naingo herritar batek eman zuen lekukotza, amak kontatu ziona gogoan: «Hamar edo hamabi lagun hil zituzten zelai hartan. Hantxe lurperatu zituzten, eta urte luzetan hondoratuta ikusten zen ingurua. Gero, makinekin lan egiten hasi zirenean, lurra berdinu egin zen».

Berhin lekukotza entzunda, urte berean, 2017an, hasi ziren indusketa lanak egiten, baina ez zuten ezer aurkitu. Izan ere, lekukotzak adierazi zuen Ibero herrira (Nafarroa) doan bidexkaren eskuinetan zeudela gorpuzkiak. Hori dela eta, Baternaingo Udaltzatik bultzatutako ikerketek eskertzen zuten 1936ko bidexka eta egungoa ez direla bera. Hala, bidexkaren ezkerrean egin dituzte indusketak aurretik, eta bertan topatu dituzte arrastoak.

Gorpuzkiak batek eskuak lotuta zituen metalezko eskuburdinekin. Horregatik uste dute litekeena dela Ezkabatik eramanda-



Baternainen aurkitutako arrastoetako batzuk. IÑAKI PORTO/EFE

ko presoengorpuzkiak izatea. DNA probak egingo dituzte orain NAsERTIC laborategian, gorpuzkiak norenak diren argitzeko.

Nafarroako Gobernuak hainbat hitzarmen sinatu ditu Aranzadi zientzia elkartearekin 2016tik hona. Ollok adierazi du sei urte horietan «frankismoaren errepresioaren» 154 biktimaren gorpuzkiak induskatu dituztela.

Baternaino indusketa Nafarroako Gobernuaren Bake, Bizikidetzeta eta Giza Eskubideen Zuzendaritza Orokorrak diseinatutako Desobiratzearen Planaren barruan dago, Aranzadirekin si-

natutako hitzarmenari esker. Aurten hamahiru indusketa egin dituzte orain arte, nahiz eta guztira 23 egiteko asmoa duten, eta horietako hirutan topatu dituzte gorpuzkiak: Antsoainen hilotz bat topatu zuten; 23 Berriozarren, eta hamar Baternainen.

## «Hipotesi asko»

Indusketa lanetan aritu da Lourdes Herrasti Aranzadiko antropologoa, eta aurkikuntza garrantzitsua dela dioen arren, adierazi du oraindik itxaron egin behar dela ondorioak ateratzeko, «hipotesi asko» baitituzte.

Antropologoaren arabera, tiroz hil zituzten pertsona horiek, hezurduan zuloak eta inguruan batak topatu baitituzte. Hildakoetako batek eskuburduak zituenez, hipotesi nagusia da «estrajudizialki» hil zituzten presoak zirela; izan ere, ez dago hilketa horien inguruko erregistrorik.

«Erreferentzia gutxi dugu. Ezkabatik ateratako presoak izan zitezkeen, edo presoengoitik pasatu gabe hil zituzten pertsonak. Hobiratze moduagatik, ziurrenik denbora tarte txikian edo egun berean hil zituzten», Herrastiren arabera.